

MARTXEL RODRÍGUEZ ETXABIDE

Martxel Rodríguez Etxabide (Lesaka, 1990) Fisikan graduatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), non, horretaz gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako masterra eskuratu baitzuen. Nolanahi ere, laster bideratu zuen bere ibilbide profesionala dantzaren mundurantz, Dantzaz Konpainia izeneko taldearekin (2013). Han zenbait koreograforekin lan egin zuen: besteak beste, Itzik Galili, Jone San Martin, Paolo Mohovich eta Lukas Timulak-ekin.

Black Box Dance Company talde daniarrean sartu zen (2014), eta konpainia horren Marie Brolin-Tani zuzendariarekin lan egin. Konpainia horretan goi mailako koreografoekin topatu zen; hala nola, Tim Rushton eta Edhem Jesenkovic-ekin. Israelera joan zen bere prestakuntza osatzera eta, ondoren, Oskara proiektuan sartu. Valentziako Erkidegoko Premis de les ArtsEsceniques-en, dantzari onenaren sarirako proposatu zuten (2019). Urte horretan berean, Kultura Kudeaketako masterra lortu zuen Kataluniako Universitat Obertan. Gainera, 2016tik aitzina, freelance dantzari gisa lan egiteaz gain, bere konpainia zuentzen du, Led Silhouette izeneko eta egoitza Lesakan duena; talde horretan, Jon Lópezekin batera, etapa berri bati ekin dio, konpainiaren sortzaile eta zuzendarikide gisa.

Haren lanak zenbait espaziotan erakutsi dira, hala nola, Valentziako Museo Centre del Carmen-en, Nafarroako Museoan eta Madrilgo Tabacalera Kultur eta Arte Zentroan. Azpimarratu dezagun haren lanak –*Creepy Crawly*, *Cóncavo Convexo*, *Errata Natural* edo *Wild Street*– honako sare eta zirkuitu hauetan daudela sartuta: PLATEA (2021), Acieloabierto sarea (2019 eta 2021), Antzoki Alternatiboen Sarea (2020) eta Nafarroako Antzokien Sarearen Zirkuitua (2020). Beren ekoizpenez gain, sormeneko laborategi eta lan batzuk egiten hasi ziren beste zenbait konpainiatan; esaterako, Valencia Dancing Forward, LAB 180º eta Dantzaz Konpainian. 2021eko irailean Portugalera joan ziren *RGB* ekoiztera. Ikuskizun hori Led Silhouettek sortu zuen Companhia de Dança de Almada taldearentzat.

Diziplina anitzeko kolektibo gisa, beste zenbait artistarekin aritzen dira elkarlanean zenbait proiektutan; esaterako, honako hauekin: Lukas Ulmi (eskultorea), Nestor Lizalde (baliabide berrien artista), Irantzu Pastor (argazkilaria), Paula Olaz (musikagilea) eta Bertha Bermúdezekin (dantzaria eta dokumentalista).

Led Silhouette taldearen lana ez da bakarrik gorputzean oinarritzen, hura gainditu eta haratago iritsi nahi baitu. Haren hizkuntza artearen alorretako adituen lankidetzekin aberasten da, eta giro eraldatzaileak sortzea lortzen du, non forma zenbait modutan erakusten baita. Horrela, anitz aurpegiko poliedro bihurtzen da, eta mugimendua eta irudia darabiltza arma funtsezko eta liluratzailer bezala.